# argazkilaritza maiatzean



Joaquín Vara

EIBAR 2004

EIBARKO KLUB DEPORTIBOA
EIBARKO UDALA
Arrate Kultur Elkartea
EL AMBIGÚ café




# EL AMBIGÚ

**Maiatzak 1-30 Mayo**

**Ordutegia**: 7:00-22:00

# Eibarko Klub Deportiboko Argazki taldea

## FLASH ETENEZINA

"Oinaztarri etenezina"ren egileak zioena hartuta, izenburu horrek Eibarko Klub Deportiboaren Argazki taldeak egiten duen lan etengabea seinalatzen du.
Lan etenezina, geragabea, ez bakarrik kopuru aldetik ugaltzen ari diren taldekideek egunero egiten duten argazki-jardunean, euren zaletasuna garatzen, lehiaketetan eta arrakasta handiko erakusketetan parte hartzen; baizik eta jendearendako ikastaroak antolatzen, zaletasun hori zabaltzen eta hedatzen eta "Argazkilaritza maiatzean" bezalako jardunak egiten, aurtengoarekin, jarraian bi urte beteko baititu ikus-entzunezkoen astearen segidan; eta horrez gain, 6 erakusketa, proiekzio-emanaldi bat, ra-llya eta gainera, urte honetan, Euskal Herriko Argazki Elkarteen Federazioaren urteko Kongresua. Lan horiek gure taldeak benetan duen indarraren erakusgarri dira.
Isilean, zalapartarik atera gabe:
**Argazkilaritzan dihardugu!**

## El Flash que no cesa

*Parafraseando al autor del "Rayo que no cesa", este titulo señala la actividad continua del Eibarko Klub Deportibo Argazki Taldea.*
*No sólo en la actividad fotográfica diaria de sus componentes, cada vez en mayor número, que desarrollan su afición, participan en concursos y exposiciones con gran éxito, sino en la organización de cursillos de cara al público para extender nuestra afición y actividades como este "Argazkilaritza maiatzan" ya por segundo año consecutivo que sucede a las Semanas de Audiovisuales y que con 6 exposiciones, una proyección, el rallye y este año, además el Congreso anual de la Federación de Asociaciones Fotográficas del Pais Vasco demuestra la potencia real de nuestro club.*
*Silenciosamente y sin alharacas:*
***¡Hacemos fotografía!***



# Carles Verdú

**PORTALEA**

**Maiatzak 7-30 Mayo**

**Ordutegia**: 18:30-20:00

Carles Verdù(Barcelona, 1964). Argazkilaritza-ikasketak Bartzelonako “Institut d’estudis fotografics”-ean egin zituen. Positibatze-klaseak eman ditu eta biraje-tailerrak eta estudioko argiztapenari buruzkoak izan ditu. Gonbidatua izan da nazio mailako hainbat argazki-lehiaketatarako epaimahaikide gisa.
Argitaratu dituen lanen artean, “Fotografo de Milenio en España”, 3. liburukia (Diafragma Foto); Objatif 148 aldizkariko papel-zorroak ( Belgika, abuztua, 1998) eta “ La fotografía Actual 75” (urria, 1999) ditugu.
Eskuratu dituen sarietatik batzuk aipatzearren: “Hasselblad Austrian Supercircuit 1998”ko VÖAV urrezko medaila; Ciudad Real-eko Alcazar de San Juan herriko “Nazioarteko Pintura eta Argazkilaritza Erakusketa”ren lehen saria; “Fotosistema 2000”ko lehen saria, Alacanteko Villena herriko “Autorm2001” Nazioarteko Argazkilaritza Lehiaketaren lehen saria edo 2002. urteko Guadalajara Probintziaren lehen saria.

*Realizó sus estudios fotográficos en el Institut d´estudis fotografics de Barcelona. Ha impartido clases de positivado, así como talleres de virado e iluminación de estudio. También ha sido invitado como miembro de jurados en diversos certámenes nacionales de fotografía.*
*Entre sus publicaciones figuran: “Fotógrafo de Milenio en España”. Volumen 3 (Diafragma Foto) y los portafolios en las revista Objatif 148 (Belgica, Agosto 1998) y La fotografía Actual 75 (Octubre 1999).*
*Algunos de los premios obtenidos son: Medalla de oro VÖAV en el Hasselblad Austrian supercircuit 1998, el primer premio en la Exposición Internacional de Pintura y Fotografía Alcazar de S. Juan 1999 (Ciudad Real), Primer premio Fotosistema 2000, Primer Premio en el Concurso Internacional de fotografía de Autorm2001 de Villena (Alicante) y el Primer Premio Provincia de Guadalajara 2002.*

# Trofeo “Argizaiola” Saria

**PORTALEA**

**Maiatzak 7-30 Mayo**

**Ordutegia**: 18:30-20:00

## Lehiaketen lehiaketa Euskal Herrian

Euskal Herriko Argazkilari Taldeen Elkarteak urtero antolatzen du “Argizaiola” lehiaketa, eta gonbidapenez bertan parte hartzen duten argazkilariak, Elkarteari atxikitako Argazkilari Elkarteek antolatutako lehiaketetan sariren bat jaso duten euskal argazkilariak izaten dira.
“Argizaiola” saria entregatzen da eta argazki onenari dirutan sari handi bat ematen zaio. Epaimahaiak akzesitak ere eman ditzake.

## *El concurso de los concursos en Euskal Herria*

*La Federación de Asociaciones Fotográficas de Euskal Herria organiza anualmente este concurso al que acuden por invitación los autores vascos galardonados en los concursos organizados por las Asociaciones Fotográficas adheridas a la Federación.*
*En el se entrega el Trofeo Argizaiola y un importante premio en metálico a la mejor fotografía, pudiendo el Jurado conceder accesits.*



**Igor Etxabe**



**PORTALEA**

**Maiatzak 7-30 Mayo**

**Ordutegia**: 18:30-20:00

# Adolfo Vázquez y Joaquín Vara

Oraingo honetan, zuri-beltzezkoak eta kolorezkoak dira aurkezten dizkizuegun argazkiak, gehienak, kanpoaldeetakoak, normalean, hortxe ibiltzen baikara.
Biok elkarrekin egiten dugun erakusketa hau, argazkilaritzaren munduan azken urte hauetan ordenadore bidez egin ditugun lanen erakusgarri da.
Argazki xumeak dira, guri gustatzen zaizkigun gauzak diren bezalakoxeak, gure irudiak bizimoduan barrena joateko dugun modu horrekin ezagutu nahian egindakoak.
Lorpenak, garaipenak, beti etortzen dira ondo, aurrera egiten laguntzen digute baina ez dira horren garrantzia handikoak.
Argazkilaritzan benetan estimuan duguna, betiko geratzen dena, urte hauetan ezagutu ditugun pertsonen "Adiskidetasuna" da. Sari bat, minutu batzuetarako lorea baino ez da: adiskietasunak ostera, kasu batzuetan, betiko irauten du.
Eskerrik asko erakusketara bisitan etortzeagatik eta zuen gustukoa izan dadila.

*En esta ocasión os presentamos unas fotografías en b/n y color, principalmente de exteriores, que es donde normalmente nos movemos.*
*Esta Exposición conjunta, reune una muestra de las obras que hemos ido elaborando a lo largo de estos últimos años de andanza por la fotografía, realizadas por ordenador.*
*Son sencillas, como a nosotros nos gustan las cosas, tratando de identificar nuestras imágenes con nuestra forma de ir por la vida.*
*En cuanto a triunfos siempre vienen bien, nos ayudan a seguir adelante, aunque no son tan importantes.*
*De la fotografìa lo que verdaderamente valoramos y siempre queda es "La Amistad" de las personas que hemos conocido a lo largo de estos años. Un premio es flor de unos minutos, la amistad perdura en algunos casos para siempre.*
*Gracias por visitar esta exposiciòn y que os guste.*



**TOPALEKU**

**Maiatzak 14-23 Mayo**

**Ordutegia**:
12:00-14:00 / 19:00-21:00

# Angel Ispizua

## Amaigabeko edertasuna

Akaso izadia bezalako argazkigai bat sarriago adierazten da kolore bidez; arraroak dira horren inguruko erakusketa monokromatikoak. Hala ere, egile batzuk kolorea maisutasunez lantzen dute, beraien lanetan koloreak islatzerakoan pintore-paleta eskuetan balute bezala aritzen dira: erromako zubiaren kolore guztiak azertuz eta edertasunez beteak. Nik ostera, inguratzen nauena zuriz eta beltzez dakusat, grisen eskala handi bat tartean dela. Dirudi, ingurua nire pentsamenduari eskuragarriagoa egiten zaiola horrela eginez. Ideia baten adierazpena ematea, sentimendu bat, emozio bat adieraztea, errazagoa zait horrela, zuria da edo beltza da, ze erraza ezta?. Ozeanoaren indarra, erreka baten ondoan zaudela iluntze aldeak ematen duen bakea, izadiaren oparotasuna, loreen edertasun amaiezina. Horrexegatik, nire argazki-begirada ere xumea da: ohituta nago oinarrizko sentimenduak adierazten, akaso ez dira oso landuak izango baina sakonak eta egiazkoak dira, zuriak edo beltzak.

## La belleza inacabable

*Quizá un tema fotográfico como la naturaleza se exprese con más frecuencia en color, son raras las exposiciones en monocromo, realmente hay autores que trabajan el color con maestría y plasman en sus obras como, si con una paleta de pintor se tratara, todos los colores del arco iris con gran acierto y belleza. Pero yo, veo lo que me rodea en Blanco y Negro, incluyendo en ello una gran escala de grises. Parece que así el entorno se hace más accesible a mi pensamiento. La expresión de una idea, un sentimiento, una emoción se me hace fácil, es blanco o es negro, que sencillo ¿verdad?. La fuerza del océano, la paz de un atardecer al lado de un río, la fecundidad de la naturaleza, la belleza inacabable de las flores. Mi mirada fotográfica es por eso, así mismo sencilla; y es que estoy acostumbrado a expresar sentimientos básicos, quizá no muy elaborados pero a la vez profundos y verdaderos, blancos o negros.*



# Juan Ramón Llavori

**CLUB DEPORTIVO EIBAR**

**Maiatzak 1-30 Mayo**

**Ordutegia**: 11:00-22:00

## Ladakh-eko umeak

Arrastian, ilargikoak ziruditen leku batzuetatik bidai luze bat egin ondoren, Yang Tang-etik Lamayuru-ra iritsi ginen. Dorjeek eta Tenzinek gaua pasatzeko tokiren baten bila zebiltzan bitartean, nik, nahitan, Ladakh-era heldu nintzenetik barneratu zitzaidan sentipen batek harrapa nintzan utzi nuen.
Abarrotsaren zaratek gidatu ninduten; nire pausuek Norbu eskolaraino eraman ninduten, eta han, liluratuta geratu nintzen. Nire begiek kolore askotako txikiandana bat zuten aurrean. Haien mugimendua, haien oihu eta kantuak, haien jolasak. Jostailu bakarrak euren gorputzak ziren.
Geroxeago nire kamerak bere lana ziharduen egiten, une harekin konplizitate hutsean. Ni, ahaztutako mundu baten lekuko mutu nintzen, denboran eta espazioan galdutako errealitate baten lekuko.
**"Harrapatu unea baina ez zaitez indarrez sartu zurea ez den beste Unibertso batean."**

## *Los niños de Ladakh*

*Al atardecer, después de un largo viaje por un paisaje lunar, desde Yang Tang, llegamos al mediodía ¿a Lamayuru. Mientras Dorjee y Tenzin buscaban el alojamiento, yo, conscientemente me dejé atrapar por una sensación arraigada dentro de mí desde mi llegada a Ladkah. Guiado por los sonidos de una algarabía, mis pasos me llevaron hasta la escuela Norbu, y me quedé fascinado. Mis ojos observaban a una grey de pequeños seres multicolores. Sus movimientos, sus gritos y cantos, sus juegos. Como únicos juguetes sus propios cuerpos.*
*Más tarde, mi cámara, hacia su trabajo, en complicidad con el momento. Yo, mudo testigo de un mundo olvidado, de una realidad perdida en el espacio y en el tiempo.*
***"Atrapa el momento, pero no invadas un Universo ajeno"*.**

exposición fotográfica

ARGAZKILARITZA MAIATZEAN

# K O N G R E S U A

Federación de Agrupaciones Fotográficas del País Vasco

## Euskal Herriko Argazkilari Taldeen Elkartea

**PORTALEA**

**Maiatzak**

**15** **Mayo**

**Ordutegia**: 10:00-14:00



# José Luis Feo

## 3Dimentsioko ESTEREOSKOPIA emanaldia

Ezaguna da argazki-rallyetan, eta berak aitortzen duenez, horretan da, edo izan da, “aditua.”
Orain dela 8 urte, Zarauzko Photomuseumean egindako erakusketa batean argazki-estereoskopiko batzuk ikusi zituen eta “engantxatuta” geratu zen: “Hau nik egin behar dut”.
Ordutik hona estereoskopia du maite, hiru dimentsioak, bilatu, galdetu egiten du... Paperean atera zituen lehenengo argazki haiek egin zituenetik hogei urte igarota, 3 dimentsiotako irudi ikusgarriak ekarri dizkigu.

*Pertenece al Club Pol Pol de Bergara y es conocido en los diferentes Rallys fotográficos, que reconoce es, o ha sido, su “fuerte”. Hace 8 años, en una exposición en el Photomuseum de Zarautz, ve unas fotos estereoscópicas y se queda “enganchado”. “ Esto tengo que hacerlo yo”.*
*A partir de entonces se vuelca en la estereoscopia, tres dimensiones, busca, pregunta.... Veinte años depués de sus primeras fotos en papel nos presenta espectaculares imágenes en 3D*

**DEPOR**

**Maiatzak**

**30** **Mayo**

# A R G A Z K I
# R A L L Y A

**Ordutegia**: 08:30-14:30

Eibarko Klub Deportiboa